

LESBIAN ISMOA

Ez gara lagunak bakarrik...



AURKIBIDEA

Ez gara lagunak bakarrik...	5
Historia	6
Esperientzia lesbikoak	15
Material interesgarriak	18

LESBIAN ISMOA

Ez gara lagunak bakarrik...

EZ GARA LAGUNAK BAKARRIK...

Zugan pentsatuta idatzi dut testu hau.

Zuretzat, gure bizipenak ezagutzen dituzun horrentzat. Eta baita zuretzat ere, lesbianen, bolleren, tortilleren, matxorroen, inbertituen edota safikoen (edo gu izendatzeko entzun duzun beste edozein izendapenen) errealitateak gertutik ezagutu ez dituzun horrentzat ere.

Entzuteko prest dagoenarentzat idazten dut, gai honek guztiokin baitu zerikusia. Aniztasun sexualari eta genero-aniztasunari lotutako esperientziez hitz egitea jendarte osoa eta gure kultur sistema osoa interpelatzea da. Zisheteropatriarkatuak¹ guzti-guztiongan du eragina, baita beren burua LGTBI kolektiboan kokatzen ez dutenengan ere. Adibidez, pentsatu al duzu inoiz zergatik den "normala" –normatiboa– heterosexuala eta monosexuala izatea eta harreman monogamoak izatea? Pentsatu al duzu inoiz zer ondorio eragiten dituen normatibitate horrek pertsonengan, nahiz eta harekin ados egon?

Fanzine honek zutaz hitz egiten du, eta ez da xeblearentzako testu bai, nahiz eta hori ere baden. Zorrotz baino gertutasunez hausnartu dezagun idatzi dut; uler dezagun LGTBI pertsonen bizitzaz ari garenean zutaz ere ari garela, zu ere generoaren eta desiraren arau sozialek zeharkatzen zaituzten neurrian.

Nire bizi-esperientzian zehar aurkitu dudana partekatu nahi dut zurekin. Konplize bihurtu nahi zaitut, eta bizimodu bolloa² argitu eta aldarrikatu nahi dut.

Goza dezazula!



¹ Zisgenero eta heteropatriarkatu izenen akronimo konposatua. Zisgenero esaten dugunean beren genero-identitatea jaiotzean esleitu zioten rolaekin bat datorkien pertsonen ari gara. Zisgeneroren kontrakoari transgenero esaten zaio. Heteropatriarkatu esaten dugunean heterosexualitatea jokabidearen arau erregulatuak den antolaketa sozial, politiko eta kulturalari egin nahi diogu erreferentzia, zeinak desberdinkeriak edo indarkeria formak eragiten baititu hura harrokeriaz edo handikeriaz erabiltzen denean.

² Nire egin dut, nire burua izendatzeko, bere garaian iraina izan zen hitz bat. Karga negatibo hori desaktibatu eta nire bollera-izaera aldarrikatu nahi dut.

HISTORIA

Lesbiana hitza beste emakume batzueganako erakarpen erromantiko edo sexuala sentitzen dugun emakumeok izendatzeko erabiltzen da³.

Terminoak Lesbosen du erroa, ezagutzen al duzu? Orain, tamalez, irla hori ez da ezaguna bertan jaio zen Safo poetagatik, historian ezagutzen den lehenengo lesbianagatik, bakarrik. Egiaz, haren bizitzaz ikertzen baduzu, bisexuala zela ikusiko duzu, baina hain handia izan zen emakumeenganako zuen desira, ezen “safiko” hitza “lesbiko”⁴ hitzaren sinonimo bihurtu baita. Emakumeentzako eskola bat sortu zuen emakume izatea gizartearen mailaren baxuenean egotea esan nahi zuen antzinako Grezia hartan. Grezia hark sexua sakondu eta ikertu beharreko plazer moduan ulertzen zuen, eta homosexualitatea ondo ezaguna zen. Hala ere, gaur egungo mendebaldeko gure gizartera iritsi den lesbianismoa Saforekin hasi zen, eta mende asko eta asko igaro arte ez dugu lesbianismoaren beste froga historikorik.

Antzinako Txinan onartzen zituzten neurri batean harreman lesbikoak; are, badirudi emakumeen arteko ezkontzak eta emakumeek bakarrik osatutako elkarbizitza-taldeak ere bazirela. Ekialde Ertainean, Babiloniaren garaian, legediak *salzikrum* (“alaba gizon”) izendatutako emakume mota bat aitortzen zuen. Garai hartako emakume apaizek bezala, aitaren ondasunak jaso zitzakeen oinordetzan –emakume arruntek ez zuten halakorik egiterik–, eta familia bat sor zezaketen emazte batekin edo gehiagorekin.

Antzeko prozesua gertatu zen Afrikan. Bertako kolonizazioak arau binarioak eta

heterosexualak sendotu zituen.

Europako Erdi Aroan, emakumeen sexualitatea erabat ezkutuan zegoen. Legeria zibiletan praktika lesbikoak zapaldu, ezkutatu eta zigortu ziren, nahiz eta frogaren bat edo beste topa daitekeen mojen komentuetan.

Oro har baieztatu dezakegu lesbianismoa gure historia osoan zehar bilakatu dutela ikusezin. Bueno, lesbiana hitza bera eraikuntza modernoa da. Lesbianismoari, lehen, sodomia femenino, homoerotismo femenino esaten zitzaion, eta lesbianeiei, tribade.

³ Niretzat, emakumea hitzak genero-nortasunari egiten dio erreferentzia eta, horrenbestez, logika biologizistatik haratago doan kategoria autoezarria eta autoidentifikatzailea dela esan dezakegu. Pertsonak bere burua identifikatzen duen genero-nortasuna edo, nahiz eta harekin erabat bat etorri ez, nolabait onartuta dagoen izendapen soziala da.

⁴ Bisexualen ikusezintasun historiko eta gaur egungoaz gehiago jakiteko, ikus Gasteizko Udaleko Berdintasun Zerbitzuak argitaratutako BISEXUALITATEA Ez da fase bat, geratzeko gaude hemen fanzinea.



Emakumeen arteko sexuaren gaineko zigorren, eta haren inguruan ezabatu eta isilarazi direnen aztarnak ezagutuko bagenu, gure desiraren eta ezarri zaizkigun zigorren dimentsio historikoa berriz aurkituko genuke. Gainera, sexu lesbikoa ez zuten ulertzen, munduari eta sexualitateari modu falozentriko eta koitozentrikoan⁵ begiratzen zitzaionez, beste aukera batzuen iruditeriarik ez baitzegoen. Beraz, lesbianismoa ez zegoen aukeren artean ere.

Eta hala, mendeetan zehar ezdeusaren eta sistema heteropatriarkalaren subertsio totalaren artean egon zen.

Europako garai modernoetan, haren zergatia ulertzeko saiakeran, lesbianismoa mediku-desbiderapen gisa interpretatu zuten. Asko dira gizon aitortpena izateko, eta hala, harreman sexu-afektiboak beste emakume batzuekin izateko, publikoki beren burua modu maskulinoan agertzen hasi ziren emakumeak. Jakina, harrapatzen bazituzten, gogor zigortzen zituzten. XVII. eta XIX. mendeen artean oso ohikoa zen emakumeek beren artean pasiozko maitasuna adieraztea eta "adiskidetasun erromantikoak" arrakastatsu bihurtu ziren. Horien artean ezagunenetakoak Juana Inés de la Cruz Ahizpak erreginaorde pare batekin izan zituen harremanak dira. Baina tira, finean harreman lesbiko horiek ezkutatzeko beste modu bat baino ez ziren. Hori hobeto kontatzen du Cristina Domenechek, *Señoras que se empotraron hace mucho* liburuan, zeinetan umorez eta zorrotasun historikoz, ezkondu ez ziren eta beren sexualitatea garaiko kanon sozialak desafiatuz adierazi zuten emakume erreferenteen istorio publiko eta pribatuak jasotzen baititu. Eskuragarri dago Udal Liburutegietan. Bilatu, eta ikusiko duzu...

⁵ Falozentrismoak esan nahi du gizartean sexualitatea zakilaren bueltan eraiki dela, zentralitatea berak izan behar balu bezala, eta guk badakigu ezetz, ezta? Kontua da gizonek historian zehar nahi izan dutena erdigunean jartzeko pribilegioa izan dutela, horretarako ezer eta inor kontuan hartu gabe, are gutxiago emakumeen plazera. Horrek zuzenean koitozentrismora eramaten gaitu; zakila bada erdigunean dagoena, koitoa da haren balidazioa. Sexualitatea ulertzeko modu hori dago jokabide matxista eta LGBTIfobiko askoren atzean.

XX. mendea iristean, nazismoak triangelu beltzez markatu gintuen kontzentrazio-esparruetan. Triangelu beltza mugimendu lesbofeminista identifikatzeko gehien erabiltzen den bandera baten parte da, hauxe:



1970eko hamarkadan, mugimendu lesbiko eta feministek indarraren eta buruaskitasunaren adierazgarri den labrys izeneko aizkora hau hartu zuten sinbolo. Morea da feminismoaren kolorea XX. mende hasieratik.

Hala izan zen 70eko hamarkadan ere, zeinetan mugimendu feministak, antiarrazistak, ekologistak eta lesbikoak artikulatu baitziren. "Armairutik" atera ziren emakumeek hasieran gay kolektiboekin batera militatzen zuten, baina segituan jabetzen ziren ekintzarako espazio propioak behar dituztela.

Gasteizen ALA-ALA (Asamblea de Lesbianas de Álava-Arabako Lesbianen Asanblada) kolektiboa izan genuen; aldarrikapenerako eta ikusgarritasunerako beste ekintza batzuen artean, umore handiz taxutu zituzten kartelak. Hona hemen adibide bat:



Iturria: Emakumeen Dokumentazio Zentroa. Maite Albiz.

Geroztik, beste talde batzuk agertu eta desagertu dira, adibidez 7menos20 edo SúKubo espazioa. Gaur egun B.A.L.A. kolektiboa aurki dezakegu. Horrek "Gorputzak eta sexualitateak"⁶ mahai-inguruan parte hartu zuen 2020an Durangon egin ziren Euskal herriko V. Jardunaldi Feministetan.

⁶ Ikusi bideoa esteka honetan: <https://cutt.ly/RhuViSo>

Hasieratik, lesbofobia salatu izan dugu,

gure jendarteetan lesbianen aurkako sinesmen, estereotipo, aurreiritzi eta abarretan oinarritutako ideia eta kontzeptu negatiboetan islatzen baita. Errefusa-sentimenduetan (beldurra, nazka, lotsa...) eta lesbianen kontrako jarrera eta jokabideetan (irainak edo eraso fisikoak) ere islatzen da. Erne ibili, fobiak ez baitira indibidualak bakarrik, sistemikoak ere izan daitezke, adibidez, eskubideak izatea debekatzen duten legeak, hedabideetako mezuak, etab.

Lesbianen kolektiboari dagokion iruditeria soziala, neurri handi batean, errealitatetik oso urrun dauden estereotipo eta aurreiritziak zabaltzen dituzten mezuetatik eta komunikabideetatik osatzen dugu.

Gure presentzia jendartetik, historiatik eta politikatik ezabatu izana ere lesbofobia da. Ikusezintasuna da diskriminaziorako lehenengo urratsa eta erreferente falta dakar, izan emakume lesbianentzat beraientzat, bisexualentzat, zein gizartearentzat, oro har.

Jendarte heteropatriarkalak heteroen desira inposatzen du sexualitatea bizitzeko modu bakar gisa. Eta hortik kanpora dagoen beste edozein praktika edo esperientzia onargarria denaren mugatik kanpora legoke. Hori da LGTBIfobia ororen oinarrian dagoena. Gainera, ez da gaitzespen sozial orokorra bakarrik, baizik eta familiako espazioetan eta ingurune hurbilean gertatzen da, hala nola koadrilan, gelan edo kirol-taldean.

Pentsatu al duzu inoiz Interneten lesbianismo edo lesbiana bilatzen duzunean *mainstream*⁷ pornografia-orrialdeak ematen dizkizula? Horrek erakusten du gizarteak lesbianak feminitatearen eta heteronormatibitatearen neurri tradizionaletan hesitzen dituen objektu bilakatzen dituela. Horrela, lesbianen sexua desira maskulinoa asetzeko irudikatu ohi da, eta gutxitan geure desira propioak asetzeko, eta hori ere lesbofobikoa da.

Lesbofobiaren inguruan informazio gehiago duten bi pista emango dizkizuegu: June Fernándezen eta Andrea Momoitioren "L-E-S-B-O-F-O-B-I-A: ¿Por qué y cómo hay que nombrarla?"⁸ artikulua (euskaraz: "L-E-S-B-O-F-O-B-I-A: zergatik eta nola izendatu behar da?") eta Creación Positivak egindako *Lesbofobia: un documental y diez respuestas*⁹ (euskaraz: *Lesbofobia: dokumental bat eta hamar erantzun*) dokumentala.

⁷ "(...) Hedapen handiena duen edo kontsumo bizkorreko pornoak sexuarekin, generoarekin eta gorputzaren normaltasunarekin lotutako estereotipoak betiketzen ditu; horrekin lotuta, gorputz jakin batzuk gorputz desiragarri gisa erakusten ditu, eta beste batzuk, aldiz, zitalizat eta nazkagarritzat. Genero arloko binarismoa sendotu eta jardunbide jakin batzuk bistaratzen ditu. Bien bitartean, beste batzuetarako sarbidea zailtzen du edo haiek ikusezin bihurtzen ditu". Iraia Oiarzabalek *Naiz*-en idatzitako artikulua bat oinarritzat hartuta Elena/Urkok prestatutako laburpena. 2021eko azaroaren 3an hemen kontsultatutakoa: <https://cutt.ly/DhcELRB>

⁸ Testua osorik Viento Sur webgunean aurki daiteke. Jarraitu irakurtzen hemen: <https://cutt.ly/AhuVj70>

⁹ Esteka honetan informazio gehiago aurki daiteke dokumentalaren inguruan: <https://cutt.ly/wW46tOW>

“Bollera” iraina da, eta era berean, guk, lesbiana aktibistok, gure buruari jartzen diogun izendapena. Irain hori gure egin eta kolektiboki ahalduntzeko keinu batean, esanahi gaitzesgarri hori desaktibatzeke keinua da.

Mugimendu lesbikoaren

aldarrikapenek bizitza sozialean, hedabideetan, kulturaren eta politikan ikusgarritasun handiagoa eta lesbianen erreferentzia publiko gehiago eskatzen dituzte. Garrantzitsua da mugimenduaren memoria historikoari balioa ematea, eta haiek emakumeen eta LGTBI kolektiboaren eskubide sozialak lortzeko egindako borrokek duten garrantzia aitortzea.


Lantoki eta ikastetxeetan lesbofobia amaitzea eskatzen dugu. Gizarteak geure errealitateak ezagutzea eta genero-arauek, gutaz aparte, gizarte honetan elkarrekin bizi garen pertsona guztiei eragiten digutela kontzientzia hartzea behar dugu. Interes kolektiboko eta osasun publikoko gaia da.

Eremu soziosanitarioan emakumeen arteko sexualitatea inguratzen duten estereotipo eta mitoei ihes egingo dien arreta espezializatua behar da. Urrats handia litzateke osasun-langileak orokorrean pentsamendu heterosexistatik aldentzea eta lesbianen errealitateaz informatuta egotea, horrek diskriminazio eta ikusezintasuna nabarmen murriztuko lukeelako. Osasun-zentroan zer egoera gertatu zaizkidan niri (eta beste askori)? Ohikoena da ginekologoaren kontsultara joaten naizenean heteroa naizela jakintzat ematea, eta noski, galderetan ez asmatzea. Orain dela gutxi, familiako medikuarenera jo nuen osasun-sistema publikoaren bidez ama izan nahi nuela-eta, eta hauxe erantzun zidan: (isilunea) Ba... Osakidetzaren bidez ez dago egiterik, ezta? Nire lagun batek klinika pribatu batean egin zuen». Jakina, badugu laguntza bidezko ugalketarako eskubidea; eskerrak banuen nik horren berri.

Sozialki IRAKASTEN saritzen dena hartzen da normaltzat



ESPERIENTZIA LESBIKOAK



Lesbianismoa erlazionatzeko beste modu bat da



Gasteizko lesbianen beste
ahots batzuk jasoko ditugu...
Identifikatuta sentitzen al zara
kontatzen dituzten bizipenekin?



“Ni, esaterako, beldur naiz nolakoa izango den nire bizimodua haurra izaten dudanean, orain artean nahiko ezkutuan baitaramat –nire inguru hurbilean salbu–, baina ez dakit... Harategira zerbait erostera elkarrekin joaten garenean, harakinak mutil-lagunari buruz galdetzen digu beti, eta, emakume nagusiz beteta egoten denez, jende nagusia bizi den auzo batean bizi bainaiz, bada...”.

Lesbiana: “Desirak plazara. Gasteizko LGBTI biztanleriaren errealitateei buruzko diagnostikoa”¹⁰.

¹⁰ Kontsultatu diagnostiko osoa esteka honetan:
<https://cutt.ly/4W46zhX>

Horregatik, niri ez zait burutik pasatu ere egiten lanean ezer esatea; izan ere, beste lesbiana bat eta gay bat zeuden –azken hori gerentea–, eta haiek falta zirenean, besteek larrutu egiten zituzten, baina gogotik gainera. Horregatik, ez dut pentsatu ere egiten zer naizen esatea, hori argi daukat».

Lesbiana: “Desirak plazara. Gasteizko LGBTI biztanleriaren errealitateei buruzko diagnostikoa”.

“Ergel ugarik neska batekin ikusten zaituenean lizunkeriak esateko eskubidea duela sentitzen du”.

Lesbiana: “Desirak plazara. Gasteizko LGBTI biztanleriaren errealitateei buruzko diagnostikoa”¹¹.

¹¹ <https://cutt.ly/4W46zhX>

“Gizon eta emakume banak osatutako bikotea izan bagina, denetik izango genukeen: gure familiak pisua bilatuko zigun alokairuan bizitzen jartzeko, azokan postu bat jarriko zigun, auto bat edukiko genukeen, seme-alabak... Gurtza ebanjelikora joango ginatkeen, eta uneoro aintzat hartuko gintuzkeen familia handia izango genukeen”.

Ijito lesbiana: “Desirak plazara. Gasteizko LGBTI biztanleriaren errealitateei buruzko diagnostikoa”.



MATERIAL INTERESGARRIAK

UDALAREN LOTURAK

Gasteizko Udaleko berdintasun Zerbitzua

Hitzaldia: "Haragia politizatzea. Erresistentzia-estrategiak gorputzaren disidentziatik".

Hizlaria: Lucrecia Masson, aktibista eta ikertzaile transfeminista, sudaka eta Indiarren ondorengoa, desobediente sexuala, gizona eta *Epistemología rumiante* liburuaren idazlea.

<https://cutt.ly/QgFvPIE>

Hitzaldia: "Genero-nortasunak, sexu-aniztasuna; teoria feministezako erronkak".

Hizlaria: Cristina Garaizabal, aktibista feminista eta psikoanalisisan espezializatutako psikologo klinikoa. Aniztasun sexualari eta genero-aniztasunari lotutako arazoetan aditua.

<https://cutt.ly/fgFvSP3>

Mahai-ingurua: "Sexu-aniztasuna eta genero-identitateak berdintasunerako politiketan".

Hizlariak: Cristina Garaizabal, Lucas Platero eta Inmaculada Mujika.

<https://cutt.ly/GgFvDzT>

Mahai-ingurua: "Sexu-aniztasuna eta genero-identitateak".

Hizlariak: Gerard Coll-Planas, Miquel Missé eta Sejo Carrascosa.

<https://cutt.ly/VgFvGtS>

"Sexu-aniztasuna eta genero-identitateak berdintasunerako politiketan" mintegiaren lantaldeen hausnarketak eta proposamenak.

<https://cutt.ly/ogFvH0d>

Ikusgune-Gasteizko LGTBI+fobiaren aurkako Behatokia

Lesbofobiaren, transfobiaren, bifobiaren eta homofobiaren aurka etengabeko behaketarako sistema da. Haien ekintzetan nabarmentzekoak dira erasoren bat jasan duten LGTBI pertsonen laguntzea eta babesa ematea; LGTBI fobiaren aurkako argitalpenak egitea, bereziki *Gasteizen sexu-orientazioaren eta genero-identitatearen aurka izandako gertakariei buruzko Txostena*; hiriko agente estrategikoekin batera ekimenak egitea; eta era honetako indarkeria matxista publikoki salatzea. Ikusgune Lumagorri ZATEk (Ziheterosexismoaren Aurkako Taldea) Gasteizko Udalarekin elkarlanean egindako proiektua da.

<https://ikusgune.eus/eu>

VITORIA
GASTEIZ
green capital

homofobia lesbofobia transfobia bifobia ez hemen, ez inon



Eraso baten aurrean, ez geratu ixilik. Guregana jo

Ante una agresión, no te calles. Llámanos o escríbenos

أمام أي إعتداء، لا تصمت. إتصل بنا أو راسلنا

In the face of an aggression, don't shut up. Call or write to us

Devant une agression, ne garde pas silence. Appele ou écris-nous



www.ikusgune.eus 633 309 653


 **Ikusgune**



Audre Lorde

Idazle afroamerikarra, feminista, lesbiana eta aktibista antiarrazista. Batik bat poesia idatzi zuen, eta Angela Davis eta bell hooksekin batera, feminismo afroamerikarraren funtsezko ahotsetakoa da eta dekolonialitatearen ahots kritikoen aitzindaria.

30eko hamarkadan Harlemen hazia, liburuzain egin zuen lan, bi seme-alaba izan zituen, dibortziatu egin zen eta idazten hasi zen. "Nire sentimenduak adierazteko modu bat bilatu behar nuen. Buruz ikasten nituen nire poemak. Ahoz gora esaten nituen, ez nituen idazten". Bizitza osorako bikote izango zuen emakume batez maitemindu zen Misisipiko artisten egoitza batean; ikaratuta iritsi zen, eta idazle izanda irten zen. 1992. urtean hil zen, minbiziaren aurkako borrokan hamarkada bat eman ondoren. Obra sakon eta gertukoa utzi zigun, zeina esponentzialki zabaldu baitzen¹².



Argazkia: K. Kendall

"Feminista BELTZ lesbiana borrokalari poeta eta bi seme-alabaren ama naiz, dagokidan lana egiten duena. Nor zarete zuek eta nola egiten duzue zuen lana?" Hala dio erabat gomendagarria den *Zami. A new spelling of my name: A biomythography* liburuan.

Lordek identitate horietako bakarrera ez mugatzeko egiten zuen borroka; kontrara, indar-iturri gisa horiek berresteko borrokatzen zen. Arrazakeria, klasismoa, sexismoa eta homofobia erro beretik sortutako lau itsutasun mota dira, hain justu, gizakiaren indar dinamikoan diferentzia kontzeptua aitortzeko ezintasunetik. Bizitzan zehar, poesiaren eta aktibismoaren bidez, desberdina den horrekiko fobia mota horietatik eratorritako injustiziei aurre egin eta horiek aurkezteko lanak egin zituen. *Sister outsider* (euskaraz: "ahizpa atzerritarra") liburuan jasotzen den "The master's tools will never dismantle the master's house" (euskaraz: "nagusiaren etxea ez da sekula nagusiaren lanabesez deseraikiko") konferentzian azaldu zuen zapalkuntza-egituretatik sortutako arauak, emakumeek beren bizimoduan txertatu dituztenak, gure barnean bermatutako zapalkuntza mota bat direla¹³.

¹² María Ptqk-ren artikulua Pikara Magazinen (2013):

<https://www.pikaramagazine.com/2013/06/la-hermana-outsider-audre-lorde/>

¹³ Wikipediatik ateratakoa:

https://es.wikipedia.org/wiki/Audre_Lorde

Kasha Jacqueline Nabagesera

Aktibista, Freedom and Roam Uganda¹⁴ erakundearen fundatzailea eta zuzentzailea, zeina 2003an sortu baitzen homosexualitate ilegal den eta kartzela-zigorrez zigortzen den herrialde horretako LGBTI pertsonen eskubideak defendatzeko. Bere herrialdeko lesbiana ikusgarri bakarrenetakoa da, eta nazioarteko aitortpena jaso du Ugandako LGBTI komunitatearen eskubide zibilak defendatzen egin duen lanagatik.

Tamalez, Uganda ez da munduan LGBTI pertsonak sistematikoki jazartzen eta zigortzen dituen herrialde bakarra. Begiratu munduan orientazio sexualari lotutako legeen mapa¹⁵. Agian, harritu egingo zara...



Argazkia: Earlyspatz

¹⁴ Informazio gehiago hemen: <https://faruganda.org/>

¹⁵ ILGA webgunea: <https://ilga.org/es/mapas-ilga-leyes-orientacion-sexual-2019>

Gasteizko aktibismo lesbofeministaren inguruan egindako ibilbidea.

“Identidades lésbicas, más allá de las fronteras” (Nortasun lesbikoak, mugez haratago) proiektuak Gasteizko aktibismo lesbofeministaren ibilbidea jasotzen du. K’inal Antzetik-ek (Mexikoko hego-mendebaldean emakumeek -batez ere indigenek- bideratutako antolaketa-prozesuetan laguntza ematen duen erakunde zibila) eta Setem Hego Haizea GGKEak Pikara Magazinerekin elkarlanean bultzatutako ekimena da.

Kontsultatu dokumental hau¹⁶ eta argitalpena¹⁷.

Gasteizko memoria kolektiboa berreskuratzeko lan honetan B.A.L.A. kolektiboa falta da, gerora sortua delako. Aktibo dagoen kolektibo bollo bakarra. Beren burua honela aurkezten dute: “mari-mutil, gizen, migratzaile, friki, maketoak..., baina hainbat bazterretatik etorri bagara ere, identitate bolleroak batzen gaitu guztiok”. Heteroaruari gerra deklaratzeko diote, eta sare sozialetan jarrai diezaiokezu haien arrastoari: @BALAgasteiz.

¹⁶ *Identidades lésbicas, más allá de las fronteras* (Nortasun lesbikoak, mugez haratago) dokumentala: <https://cutt.ly/BhcTWBs>

¹⁷ *Pikara Lab Identidades lésbicas, más allá de las fronteras* (Nortasun lesbikoak, mugez haratago): <https://cutt.ly/BR22Hij>

ZURE UDAL LIBURUTEGIAN AURKITUKO DUZU...

Hemen dituzue proposamen batzuk:

Cómo superar un bollo drama

Paula Alcaide (2019)

Desira sexualik ez izatea, harreman toxikoak, emakume heterosexual batekin maitemintzea, hausturak, gaizkiulertuak, zeloak, bikote-krisiak... Beste emakume batzuekin harremanak dituzten emakumeen bizitza afektiboa gorabeheraz josita dago, eta guztiek dituzte beldurrez begiratzen diegun “bollo dramak”. Paul Alcaide psikologoak eskuliburu honetan emakumeen arteko harremanen berezitasun batzuk erakusten ditu eta emozio-intentsitate altuko une horiei aurre egiteko jarraibide batzuk ematen ditu.

“Paulak, nire ustez, emakume lesbiana eta bisexualentzat psikologo zoragarri izateko ezaugarriak bildu ditu”, esan Gabriel J. Martínek, Terapia Afirmatibo Gay-an espezializatutako psikologo eta idazleak.

“Nork ez du inoiz bollo dramarik izan? Paulak idatzitako gida erabat beharrezkoa da, eta gainera, arazo bat identifikatzen eta oreka berreskuratzen lagun diezazuke”.

“Oso erabilgarria suertatu zait emakume eta lesbiana moduan, baita bollo dramatik harago ere. Ez nago bollo dramatik libre, baina kontzeptu horretatik kanpora ere, uste dut oso gida erabilgarria dela nork bere burua emakume lesbiana gisa ezagutzeko. Orrialdeetan nire isla topatu dut, nire burua ulertzen lagunduko balidate bezala”, dio Miriam Beizana Vigo eleberrigilea¹⁸.



¹⁸ B.A.L.A. kolektiboak Hala Bedi webgunean sinatutako aurkezpenaren zatia: <https://cutt.ly/BR22gqV>. 2021eko azaroaren 3an kontsultatua.

Fruta prohibida


Jeanette Winterson (1991)

Jeanette Wintersonen lehenengo lana da, haurtzarotik nerabegarora igarotzeari buruzko nobela autobiografikoa.

Haurtzaroko une esanguratsuenetan, Jeanette Wintersonek beti izaten zuen eskura laranja bat. Heldu, zuritu eta jan egiten zuen, fruta ale horrek gaitz guztien aurrean kontsolamendua emango balio bezala. Geroago, gozoagoa zen beste fruitu bat ere bazela aurkitu zuen, baina ezkutuan, jendearen mihi gaiztoetatik eta amaren begirada inkisidoretik aparte, jan beharra zegoela; fruitu debekatua zen, baina merezi zuen arriskua hartu eta gutizia hartaz gozatzea.

Jeanette Winterson komunitate oso baten debozio erlijiosoaren itzalpean hazi zen, Ingalaterrako hiri industrial txiki bateko bikote ebanjeliko batek adoptatu ondoren. Bizitzako lehen urteak sermoiek eta Bibliako hitzek erakarrirako eliztarren artean eman zituen, eta liburu horixe izan zen etxean izan zuten bakarra. Hamar urte paseak zituela, ordea, neskatoa bestelakoa zela eta bere gorputzaren legeek beste era batera maitatzera eramango zutela jabetu zen.

Jeanette hiritik joan, eta hogeita lau urterekin, *Oranges are not the only fruit* liburua (gaztelaniazko itzulpenean *Fruta prohibida*) idatzi zuen, nerabegarotik helduarora igarotzearen kronika hunkigarria; orduko irakurleak gogoberotu zituen, eta gaur bizitzan aurrera egiteko gida paregabea da oraindik.



Maternidades cuir

Eva Abril y Gracia Trujillo (2020)

Liburu hau ama trans* eta zisen, ez-heterosexuaren eta/edo ez-heteronormatiboen ahotsen bilduma bat da –azken hori, norberaren irudipenaren arabera neurtuta–. Hasieratik pentsatu izan dugu orrialde hauetan biltzen den amatasunaren multzo zabalera gehien gerturatzeko den terminoa queer/cuir/kuir dela. Liburua *Maternidades cuir* (queer amatasunak) izendatu dugu, baina *Amatasuna queerizatzen* ere izan zitekeen. Orrialde hauek hainbeste zedarrizten eta estutzen gaituzten “amatasunaren” ideal hori queerizatzeaz, okertzeaz, zeharkatzeaz, birdefinitzeaz, zalantzan jartzeaz eta abar dihardute. “Bat, bakarra eta librea” izan beharrean, hemen pluralean hitz egin behar dugu amatasunez, erdigunean geure gorputzak eta bizitzak jarrita, arau sexugenerikoentzat desobediente eta deserosoak direnak. Orrialde hauetan desirak, maitasunak eta minak ere zeharkatzen dira. Hau erronka sorta bat planteatzen duten gure amatasun, afektu eta queer familia guztien lagin txiki baten argazkia da (ez finkoa), eta gure ustez, ideia esanguratsu ugari ematen dizkio feminismoari eta hark amatasunaz egiten duen analisiari –oraindik oso heteroardaztua izaten jarraitzen du–, LGTBI borrokari, feminismoz blaitzen jarraitu behar baitu; eta oro har, gizarte-aldaketari.



ANTZERKIA

Elisa y Marcela

A Panadaría (2018)

Jarraian obraren sinopsia aurkezten dizuegu:

1901. urtea, A Coruña. Bi emakume ezkontzen dira San Xurxoko elizan, bietako bat gizonez jantzita. Polizia-jazarpena, diligentziaz ihes egiteaz, nortasun-aldaketaz eta manipulaturako informazioz osatutako istorio bat. A Panadaría antzezten duten komikoek egiazko gertakariak berreraikitzen dituzte lotsarik gabe. Egiazkoa den horrek asmakaria dirudien komedia musikal bat. Elisa y Marcela kontradenboran doan maitasun-istorioa da¹⁹.



¹⁹ <https://apanadaria.com/>

Teoría de las Aguas

Mag De Santo (2019)

Teoría de las Aguas Mag De Santoren lau antzerki-testuren bilduma da. Testu horietan, BEHINGOAGATIK lesbianismoa da protagonista. Antzezlanetako batek Euskadin ekoitzi eta estreinatutako bertsioa du: *Inundación*²⁰. Era berean, Gasteizko Aldabe antzokitik ere igaro zen LGTBfobiaren aurkako nazioarteko egunaren harira, 2019n.

Liburu honek hauek pieza hauek jasotzen ditu:

Pensé que me ahogaba pero estaba yendo más profundo (itotzen ari nintzela uste nuen baina sakonago joaten ari nintzen)

El colchón y la amiga que siempre escucha: Monólogo para tortilleras. (Beti entzuten duen koltxoia eta laguna: tortillerentzako monologoa). Buenos Airesen estreinatu zen 2015an. Magda de Santok idatzitako eta zuzendutako lana da. Eleonora Schanjovich aktoreak eta gonbidatutako adiskide batek torta maitemindu baten sentimendu ozeanikoak haragiztatzen dituzte.

Canadá (Kanada)

Lau gazte telebistari begira daude 2001eko abenduan Argentinako krisi politiko ekonomikoa hasten denean. Krisia gramatika lotzaile (sozial zein interpersonala) bihurtzen duen testu intimista eta haluzinatua.

Bohami

Bohami mende bat baino gehiago duen biomitografia da. La Platako arkeologia bat. Heresia-fitxategi bat. Genealogia lesbiko bat.

Inundación (Uholdea).

2013ko apirilaren 3an, La Plata urpean gelditzen da. YPFren leherketa batek, ur kutsatuak eta birus batek alderik alde

zeharkatzen ditu diagonalak. Haurtxoen tropelak ur gainean daude Casa Cunako tomografo eta oheen artean. Kikitak haurtxo bat salbatzea eta Emiliari ematea erabakitzen du, hark gogo bizi-bizia baitu ama izateko. Lesbiana bikote honen hondakinak inor salbu ez dagoela dirudien une retro-futurista apokaliptiko bihurtzen dira.

Eta, jakina, haren proposamena gomendatzen dugu antzerkia lesbianiztatzeko²¹.



²⁰ Informazio gehiago: <https://cutt.ly/1huNOK1>

²¹ Mag de SantoEm (2018), "Antzerkia lesbianiztatzeko oharrak" Hemen kontsultatua: <https://cutt.ly/GhuMVw8>

Lo indispensable de unas lesbianas de cuidado

Alison Bechdel (2014)

Ea gustatzen zaizun sinopsia:

Hogeita bost urtean zehar, *Unas lesbianas de cuidado* (jatorriz: *Dykes to watch out for*) tirak saritutako bolumenetan eta aldizkari alternatiboetan argitaratu ziren, eta hizkuntza ugaritara itzuli zituzten. Azkenean, bolumen honek jatorrizko hamaika bolumenen hautaketa “aberats, dibertigarri, sakon eta lirugarria” (Publishers Weekly) aurkezten digu. Gainera, orain arte liburu formatuan argitaratu gabeko hirurogei tira dakartza.

Komikia AEBko hiri batean (Minneapolis izan daiteke) bizi diren pertsonaia talde baten (gehienak lesbianak) bizitzei, amodioei eta desberdintasun ideologikoei buruzko folletoi burutsuaren antzekoa da –Bechdelek iritzi-zutabe eta eleberri viktoriar serializatuaren nahasketatzat jotzen du–.

Bechdelek irudikatutako koadrilako kideak akademikoak, gizarte-langileak edo liburuzainak dira, besteak beste. Guztiak maitemintzen dira eta maitasuna galtzen dute, lagunak egiten dituzte, haurrak hezten dituzte eta zahartzen ari diren gurasoei lagundu behar diete. *Unas lesbianas de cuidado* liburuak kultura altua eta baxua fusionatzen ditu eta nazioarteko politikaz, etxeko errutinaz eta sexuaren teoria postmodernoez hitz egiten du nobela grafikoaren formatuan, hori “aproposa baita edozein generotako humanistentzat”.



Alicia en un mundo real

Isabel Franc y Susanna Martín (2020)

Bigarren edizioa atera dute dagoeneko; irakurri hemen sinopsia, ea pizten zaizun berehala liburutegira joateko gogorik:

Aurkezten dizuegun Alicia ez da bizi herrialde miresgarrian. Tamalez emakume askori gertatzen zaion esperientzia erreal bat igaro du: bularreko minbizia. Hala ere, duen borroka-grin ero eta baikorrari esker, egoerari aurrea hartzea lortu du. Ez gaixotasunaren bidaiak, ez tratamendu erasokorrek, ezta bular bat erauzi izanak ere ez diote umorerik kendu. Istorio honetako protagonistak bere abentura kontatzen digu, lelo argi batekin: minbiziaren ondoren bizitza inoiz ez da berdina... baina berbera izaten jarraitzen du.

Ea kutsatzen dizuen bizitzaz duen ikuspegi ironikoa.



MUSIKA

Chocolate Remix



Vamos guapa enciende los motores
Pisando fuerte como los tractores
No te dejes llevar por los opresores
Que esto es reggaeton mami, esto no es folklore



Irudia: Montecruz Foto

22 <https://cutt.ly/khcUqiJ>

23 <https://cutt.ly/ShcUos6>

Girl in red



I've been hiding for so long
These feelings, they're not gone
Can I tell anyone?
Afraid of what they'll say
So I push them away
I'm acting so strange
They're so pretty, it hurts
I'm not talking about boys, I'm talking about girls
They're so pretty with their button-up shirts



Irudia: John Harvey Pegg

Tribade



Las desheredadas, prima, síguenos la pista,
esto es Lesbokinkirap-transfeminista.
yo no soy un florero más,
ser referente se hace



Irudia: Fegobe


24 <https://cutt.ly/vhcUafK>

TELESAILAK

Gomendio ugari aurki ditzakezu Lesbicanarias²⁵ edo Hay una lesbiana en mi sopa²⁶ webguneetan eta Soy un Arco Iris²⁷ webgunean, berriz, film eta serie guztiak ikus ditzakezu online. Nik bi nabarmenduko nituzke:

The L Word 2004an estreinatu zen, eta hitz egiten duen bizitza *yankee* eta pijoaz edo pertsonaiek lumarik ez izateaz harago, belaunaldi oso bat markatu zuen. Erreferente publiko gutxi zeuden une batean lesbianek idatzi eta zuzendu zituzten tramek eta dialogoek harrapatu egin gintuzten.

Feel good Mae Martin komikoak idatzitako eta antzeztutako telesail tragikomikoa da, eta pertsonaien eta tramen konplexutasunagatik eta ñabardurengatik gustatzen zaidana. Gaurkotasun handikoa eta dibertigarria.




²⁵ <https://lesbicanarias.es/>

²⁶ <https://hayunalesbianaenmisopa.com/>

²⁷ <https://soyunarcoiris.com>

FILMAK

Telesailekin bezalaxe, "Lesbicanarias" edo "Hay una lesbiana en mi sopa" webguneetan dozenaka gomendio daude. Hiru azpimarratzea gustatuko litzaidake: **Go Fish**, Rose Trocheren zinema independentearen klasiko bat delako; **Rara**, amatasun lesbikoetara garamatzalako; eta **Rafiki**, Kenian lesbiana izatea zer gogorra den erakusten duelako, baina tonu itxaropentsu eta borrokalari batez.



Irudia: amodio-harremanen koadro ospetsuaren infografía The L Word telesailaren, TLWk egina

Lesbianismoa. Ez gara lagunak bakarrik...

Argitalpena: Gasteizko Udala, Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Saila, Berdintasunerako Zerbitzua.



945 161 345



igualdad.adm@vitoria-gasteiz.org



Berdintasuna.Igualdad



@VG_berdintasuna

www.vitoria-gasteiz.org/berdintasuna
www.vitoria-gasteiz.org/desirakplazara

Erredakzio-taldea: Asociación Histeria

Diseinua, ilustrazioak eta maketazioa: Asociación Histeria

Irudiak: Al Borde Films

Itzulpena: Saretik

D.L: VI 741-2021

2021

LESBIAN ISMOA

Ez gara lagunak bakarrik...

